

HIZKUNTZA NORMALKUNTZA PROIEKTUA - 2018-2022

014422 CIFP San Jorge LHII

2018-2022 epealdirako ikastetxe honek prestatu duen Hizkuntza Normalkuntzako Proiektu honek ikastetxearen Organo Gorenaren onespena duela aitortzen dut.

EREMUEN GAINEKO HAUSNARKETA

<p>Justifikazioa</p>	<p>SAN JORGE LANBIDE HEZIKETA IKASTETXE INTEGRATUA Santurtzin kokatuta dago. Hurrengo hauek dira gure xedea, ikuspegia eta baloreak: -XEDEA: Kalitatezko heziketa eta zerbitzuak eskaintzeko, gure interes-taldeen premiekin eta gizarte-eskakizunekin bat datozenak. Bizitza osoan zehar autonomia eta prestakuntza ahalbidetzen dituzten ikaskuntza proiektuak eta dinamikak kudeatzeko, eta norberaren hazkundea eta lanbidea aurkitzeko behar diren gaitasunak lortzen laguntzeko -IKUSPEGIA: erreferentziazko ikastetxea izan nahi dugu, gure zerbitzuak kalitatezkoak eta gure inguruari egokituak direlako, garapen pertsonalerako eta profesionalerako baliabideak eskainita, eta jasangarritasunarekin eta etengabeko berrikuntzarekin konpromisoa hartuta. -BALIOAK: talde-lana, konpromisoa eta erantzukizuna, eraginkortasuna eta jasangarritasuna. Gure ikastetxeak eskaintzen duen formakuntza, araututako prestakuntza eta enplegurako prestakuntza osatzen dute. Lanbide Arlo hauetako Heziketa Zikloak ematen dira: Elektrizitate-elektronika, Kimika, Garraioa eta Ibilgailuen Mantentze lanak, Informatika eta Komunikazioak, Irudi Pertsonala eta Fabrikazio Mekanikoa. Urtero gutxi gorabehera 500 ikasle, 26 taldetan eta 12 heziketa ziklotan matrikulatuta daude. Ereduari dagokionez ziklo guztiak A, B eta D eredutan eskaintzen dira. Enplegurako prestakuntzari buruz, urtero beste 500 bat ikaslek, 35 ikastarotan formakuntza jasotzen dute. Ikasle gehienak Bilbo Handikoak dira, baina badaude Bizkaia edota beste lurralde batzuetatik datozenak. Ikasleen batez besteko adina 25 urtekoa da. 17 urteko eta 45 urteko ikasleak talde berean izaterik gertatu daiteke, horregatik talde batzuk zeharo heterogeneoak izaten dira. Gure ikasle gehienak D eredutik datoz, baina haien artean, talde txiki batzuk izan ezik, euskararen erabilera eskasa agertzen dute. Irakasleen errealitatea antzekoa da. Izatez, gehiengo batek, euskararen maila ona duela adierazten du eta 2.HE edo EGA titulua 60ak dute, beste %14ak 1.HE dute, eta gelditzen diren irakasleek, %26ak, euskararik ezer edo oso gutxi dakitela adierazten dute. Egoera hau aztertuta, esan beharra dago alde batetik aurreko urte bi hauetan lan handia egin dugula Hizkuntza Normalkuntza Proiektuan diseinatutako helburak aurrera eramaten, baina bistan da aldaketak lortu ahal izateko denbora gehiago behar izango dugula helburu nagusiak lortzeko. Bestetik esatea, irakasle berrien partaidetzarekin euskera-taldea handitu egin dela, eta honek Normalkuntza Batzordea indartu egin du.</p>
<p>Eremu Instituzionala</p>	<p>Hausnarketa sakon bat egin ondoren, aurreko plangintza-aldiarekin parekatuz, ikastetxeko egoera hurrengo hau da:</p> <p>ANTOLAKUNTZA</p> <ul style="list-style-type: none"> - Gizarte kontseilua: ikasturtean 3/4 aldiz biltzen da, gaztelera erabiltzen da. - Zuzendaritza taldea: astero biltzen da eta gaztelera izaten da. - Klaustroa: urtero 3/4 aldiz eta gaztelera izaten da. - Sailburu bilera: astero behin. Gaztelera izaten da. - Irakasle-taldeko bilerak: Ikasle talde bakoitzeko irakasleak osatzen dute eta hiruhileko bakoitzean birritan eta gaztelera izaten da. - Departamentu bilerak: astero eta gaztelera izaten da. - Hizkuntza Normalkuntzarako Batzordea (HNB): Zuzendariordeak eta euskera taldeko irakasleak osatzen dute. Astero biltzen dira eta euskara hutsean izaten da. - Lantokiko prestakuntza tutore bilera: LPko koordinatzailea eta LPko tutoreak urtero 3/4 bilera izaten dute. Gaztelera izaten da. - Jardunaldi irekia: elebiduna izaten da, gehien batean gaztelera izan arren. <p>IDATZIZKO ERABILERA</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ikastetxeko txosten orokorrak bi hizkuntzetan daude, euskararekiko diskriminazio positiboa izanik. - Ikastetxeko intraneta gaztelera dago. - Betetzen diren inkestak elebidunak dira, euskararekiko diskriminazio positiboa izanik. - Ordenagailuetan oinarritako programak, salbuespen batzuk izan ezik gaztelera daude. - Bileren deialdiak eta aktak orokorrean elebidunak izaten dira <p>KANPO HARREMANAK</p> <ul style="list-style-type: none"> - Parte-hartzaileen arabera, gaztelera, euskaraz edo elebietan izaten dira. - Ikastetxeko web-orria, oraindik atal batzuk ez daude euskaratuta. - Gure publikitatean elebietan ateratzen saiatzen ari gara. - LPko enpresekin informazio orriak, gutunak eta beste dokumentazioa LANEKlri esker euskaraz ere daukagu. <p>ESPazio HIZKUNTZA. PAISAIA</p> <p>Euskararekiko hainbat hutsune dagoela argi izan arren, diskriminazio positiboa eginaz euskararen erabilera elebidunagoa izango dela badakigu, eta bide horretatik jarraitzeko asmoa daukagu.</p>
<p>Eremuaren gaineko hausnarketa eta 4 urteko</p>	<p>4 urteko plangintzarako irizpideak.</p>

plangintzarako irizpideak	- Ikastetxe osoaren partaidetza lortu. Adibidez Zuzendaritza Taldeko kide bat eta Departamendu bakoitzeko irakasle bat egongo da HNBan. - Ikastetxeko dokumentazioa euskarazako maila zuzena eta jatorra duela ziurtatu. - HNTAK Lantokiko Prestakuntzako tutoreei behar duten laguntza berezia eman.
Eskola kideen hizkuntzako prestakuntza eta erabilera	Eskola kideen hizkuntzako prestakuntza eta erabilerrari dagokionez, Brankak ateratako datuen arabera ikastetxeko euskararen erabilera maila eta euskararen presentzia-maila bat datoz.
Eremuaren gaineko hausnarketa eta 4 urteko plangintzarako irizpideak	Hurrengo lau urteetan eskola kideen hizkuntzako prestakuntza eta erabilerrarako landu nahi ditugun irizpide nagusiak hauek izango dira: - Irakasleok erabiltzen dugun dokumentazioan euskararen maila zuzena eta egokia dela ziurtatzea. - Irakasleok eta Administrazio eta Zerbitzuetako Langileek Hizkuntza Normalkuntza dinamikatuz jabetzea eta parte hartzea.
Gelaz kanpoko jarduerak	Esan beharra dago, gure ikastetxea lanbide hezkuntzako izanik eskolaz kanpoko jardura gehienak alde batetik oso bereziak eta bestetik sarritan errepikatzen ez direnak izaten direla. Hau da ikasturte honetan egin diren jarduerak ez dira aurreko bi ikasturteetan egin genituenak. Aurreko urteetan egindakoak ahal izan diren euskararen erabili da, baina nahiz eta gure asmoa bera izan, askotan behartuta izaten gara erdaraz berba egitera besteen hizkuntza soilik gaztelera denean. Hau dela eta nahiz eta presentzia %47,62koa izan, gure eskola kideen arteko erabilera zeharo jeitsi egin da, %10,0 arte.
Eremuaren gaineko hausnarketa eta 4 urteko plangintzarako irizpideak	Hurrengo lau urteetan eskola kideen hizkuntzako prestakuntza eta erabilerrarako landu nahi ditugun irizpide nagusiak hauek izango dira: - Enpresetan ikasleak praktikak egiterakoan, ikasleak horrela adierazten badu, euskaraz berba egiten den enpresetara bidaltzea. - Eskolaz kanpoko jarduerak erabakitzean euskararen erabiltzeko aukera ere kontutan izan.
Bestelako tresnak	
Eremuen lehentasunen inguruko hausnarketa	Gure iritziz eremu hauek dira ikastetxearentzat garrantzi handienekoak: - Kanpo harremanetan, batez ere enprekin ditugun kontaktuetan, euskararen erabilera bultzatzea. - Eskolako kideen arteko euskararen erabilera handitzea. - Ikasleen euskararen erabilera maila bultzatzea.

4 URTEKO PROIEKTUA

1. EREMU INSTITUZIONALA

1.1. Ikastetxearen antolakuntza

Helburu zehatza	Ardura	Jardura mota	Adierazle mota kuantitatiboa	Adierazle mota kualitatiboa	Denboralizazioa			
					18-19	19-20	20-21	21-22
Ordenadoreetan sistema eragilea euskaraz erabiltzeko aukera eman.	IKT	Antolaketa jarduerak, Mantentze jarduerak, Prestakuntza edo trebatze jarduerak	Parte hartzeari dagokiona % tan, %100		✓	✓	✓	✓
Zuzendaritza Taldeko kide bat eta Departamendu bakoitzeko irakasle bat egongo da HNBan.	Zuzendaritza	Antolaketa jarduerak, Mantentze jarduerak, Sentiberatze-motibazio jarduerak, Erabakiak adosteko prozesuak	Parte hartzeari dagokiona % tan, %80		✓	✓	✓	✓
Ikastetxeko dokumentazioa aztertzea eta euskarazako maila zuzena, egokia eta jatorra duela ziurtatu: dokumentu administratiboak	HNB eta Zuzendaritza	Hausnarketa jarduerak, Prestakuntza edo trebatze jarduerak	Betetze maila ehunekotan neurtzen dutenak % tan, %80		✓	✓	✓	✓

1.2. Normalkuntza sustatzeko erabakiak

Helburu zehatza	Ardura	Jardura mota	Adierazle mota kuantitatiboa	Adierazle mota kualitatiboa	Denboralizazioa			
					18-19	19-20	20-21	21-22
Ikastetxeko Urteko Kudeaketa Plangintzan Hizkuntza Normalkuntza Planean egotea.	Zuzendaritza	Antolaketa jarduerak, Mantentze jarduerak, Sentiberatze-motibazio jarduerak, Erabakiak adosteko prozesuak	Parte hartzeari dagokiona % tan, %100		✓	✓	✓	✓

Helburu zehatza	Ardura	Jarduera mota	Adierazle mota kuantitatiboa	Adierazle mota kualitatiboa	Denboralizazioa			
					18-19	19-20	20-21	21-22
Ikastetxeak Berritzegunearekin dituen harremanetan euskararen erabilera lehenestea eta euskara hutsez egitea.	HNB eta Zuzendaritza	Mantentze jarduerak, Erabakiak adosteko prozesuak	Betetze maila ehunekotan neurtzen dutenak % tan, %100		✓	✓	✓	✓
Hizkuntza proiektua diseinatu eta martxan jarri	HNB	Antolaketa jarduerak, Erabakiak adosteko prozesuak	Betetze maila ehunekotan neurtzen dutenak % tan, %50		✓	✓	✓	✓

1.3. Ikastetxearen harremanetarako hizkuntza-irizpideak

Helburu zehatza	Ardura	Jarduera mota	Adierazle mota kuantitatiboa	Adierazle mota kualitatiboa	Denboralizazioa			
					18-19	19-20	20-21	21-22
Idatzizko harremanak elebidunak izatea	HNB	Mantentze jarduerak, Sentiberatze-motibazio jarduerak, Prestakuntza edo trebatze jarduerak		Betetze mailaren balorazioa, 6	✓	✓	✓	✓
HNTAk harreman estua izan Lantokiko Prestakuntzako tutoreekin.	HNAT	Antolaketa jarduerak, Erabakiak adosteko prozesuak	Parte hartzeari dagokiona % tan, %70		✓	✓	✓	✓
Ahozko lehen hitza euskaraz ematea	HNB	Mantentze jarduerak, Sentiberatze-motibazio jarduerak		Betetze mailaren balorazioa, 6	✓	✓	✓	✓
Idatzizko dokumentu orokorrak eta informazio kartelak elebidunak izatea	HNB	Antolaketa jarduerak, Mantentze jarduerak, Sentiberatze-motibazio jarduerak	Betetze maila ehunekotan neurtzen dutenak % tan, %100		✓	✓	✓	✓

1.4. Eskola eta eragileen arteko elkar hartzea

Helburu zehatza	Ardura	Jarduera mota	Adierazle mota kuantitatiboa	Adierazle mota kualitatiboa	Denboralizazioa			
					18-19	19-20	20-21	21-22
Ikastetxeen artean, eta ikastalde desberdinen artean ekintzak gauzatzea, eta ekintza horietan ikasleek euskara erabiltzea.	HNB	Antolaketa jarduerak, Erabakiak adosteko prozesuak		Parte-hartzearen balorazioa, 7	✗	✓	✓	✓
Berritzegunearekin eta LANEKiko lanbide heziketako ikastetxeekin elkarlanean jarraitzea.	HNAT	Antolaketa jarduerak, Mantentze jarduerak, Erabakiak adosteko prozesuak, Ebaluazio jarduerak		Asebetetzearen balorazioa, 8	✓	✓	✓	✓

2. ESKOLAKO KIDEEN HIZKUNTZAZKO PRESTAKUNTZA ETA ERABILERA

2.1. Ikasleak

Helburu zehatza	Ardura	Jarduera mota	Adierazle mota kuantitatiboa	Adierazle mota kualitatiboa	Denboralizazioa			
					18-19	19-20	20-21	21-22
Euskal kultura ezagutzea eta gozatzea euskararekiko motibazioa eta giro euskalduna areagotzeko.	HNB	Antolaketa jarduerak, Sentiberatze-motibazio jarduerak		Asebetetzearen balorazioa, 7	✓	✓	✓	✓

Helburu zehatza	Ardura	Jarduera mota	Adierazle mota kuantitatiboa	Adierazle mota kualitatiboa	Denboralizazioa			
					18-19	19-20	20-21	21-22
Euskara taldearen jardueretan laguntzeko ikasleek parte hartzea	HNB	Antolaketa jarduerak, Sentiberatze-motibazio jarduerak	Parte hartzeari dagokiona % tan, %10		✓	✓	✓	✓

2.2. Irakasleak

Helburu zehatza	Ardura	Jarduera mota	Adierazle mota kuantitatiboa	Adierazle mota kualitatiboa	Denboralizazioa			
					18-19	19-20	20-21	21-22
Irakasleek erabiltzen dugun dokumentazioan euskararen maila zuzena eta egokia dela ziurtatzea.	HNB	Antolaketa jarduerak, Prestakuntza edo trebatze jarduerak		Betetze mailaren balorazioa, 6	✓	✓	✓	✓
Irakasleek Hizkuntza Normalkuntza dinamikataz jabetzea eta parte hartzea	HNB	Sentiberatze-motibazio jarduerak, Prestakuntza edo trebatze jarduerak		Betetze mailaren balorazioa, 6	✓	✓	✓	✓

2.3. Administrazio eta zerbitzuetako langileak

Helburu zehatza	Ardura	Jarduera mota	Adierazle mota kuantitatiboa	Adierazle mota kualitatiboa	Denboralizazioa			
					18-19	19-20	20-21	21-22
Hizkuntzaren erabilera-irizpide batzuk zehaztuta izatea.	HNAT	Sentiberatze-motibazio jarduerak			✓	✓	✓	✓
Administrazio eta Zerbitzuetako Langileek Hizkuntza Normalkuntza dinamikataz jabetzea eta parte hartzea	HNB	Sentiberatze-motibazio jarduerak, Prestakuntza edo trebatze jarduerak		Asebetetzearen balorazioa, 6	✗	✗	✓	✓

2.4. Gurasoak

Helburu zehatza	Ardura	Jarduera mota	Adierazle mota kuantitatiboa	Adierazle mota kualitatiboa	Denboralizazioa			
					18-19	19-20	20-21	21-22
Guraso euskaldunekin harremanak euskaraz izatea	HNB	Sentiberatze-motibazio jarduerak, Prestakuntza edo trebatze jarduerak	Parte hartzeari dagokiona % tan, %50		✓	✓	✓	✓

3. GELAZ KANPOKO JARDUERAK

3.1. Eskola eragile

Helburu zehatza	Ardura	Jarduera mota	Adierazle mota kuantitatiboa	Adierazle mota kualitatiboa	Denboralizazioa			
					18-19	19-20	20-21	21-22
Enpresetan ikasleak praktikak egiterakoan, aukeran badago eta ikasleak horrela adierazten badu, euskaraz berba egiten den enpresetara bidaltzea.	Lantokiko Prestakuntza turorea	Antolaketa jarduerak, Mantentze jarduerak		Asebetetzearen balorazioa, 6	✓	✓	✓	✓

Helburu zehatza	Ardura	Jarduera mota	Adierazle mota kuantitatiboa	Adierazle mota kualitatiboa	Denboralizazioa			
					18-19	19-20	20-21	21-22
Eskolaz kanpoko jarduerak erabakitzean euskara erabiltzeko aukera ere kontutan hartu.	Zuzendaritza eta HNB	Antolaketa jarduerak, Prestakuntza edo trebatze jarduerak		Parte-hartzearen balorazioa, 6	✓	✓	✓	✓

3.2. Elkarteak / erakundeak eragile

Helburu zehatza	Ardura	Jarduera mota	Adierazle mota kuantitatiboa	Adierazle mota kualitatiboa	Denboralizazioa			
					18-19	19-20	20-21	21-22
IKASLAN,DEMA, OSALAN eta beste erakunde guztiekin harremanak elebidunak izatea	Zuzendaritza, LPO saila.	Antolaketa jarduerak, Mantentze jarduerak		Parte-hartzearen balorazioa, 6	✓	✓	✓	✓